

«Hedabideen diru laguntza politika aldatu behar da»

Euskal Hedabideen Elkarteak (Hekimen) Eusko Jaurlaritzari gonbita luzatu dio diru-laguntzak emateko irizpideez elkarrekin gogoetatzeko: “Orain, urratsak egiteko unea da”.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

EZOHIKO BATZAR NAGUSIA egin zuen azaroaren 14an Hekimenek, Andoingo Martin Ugalde kultur parkean. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetan bestelako politikak behar direla nabarmendu zuten sektoreko kideek. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hedabideentzako diru-laguntzak banatzeko irizpideak aldatu ditu aurrean eta Hekimenen esanetan erabakia sektorearekin adostu gabe hartu du.

Irismena helburu, ez abiapuntu

Besteak beste, hedabideen irismenari garrantzi handiagoa eman dio Jaurlaritzak, baina Hekimenen ustez “helburua izan behar du” irismena neurtea, “ez abiapuntu bakarra”.

Diru-laguntza politika eraginkorra izan dadin, sektoreko medioek ordezkatzen dituen erakundearen iritzitan, hedabideen sareak “gutxieneko” laguntza bat behar du: “Egun ez da bermatzen gutxieneko hori, eta handitu ezean irismena neurtzeko for-



Hekimenen ezohiko batzar nagusia, azaroaren 14an.

mula dena delakoa izanda ere, ez da nahikoa izango eta horrek sektorea ahuldu egiten du”.

Hausnarketa estrategikoa egiteko premia azpimarratu du Hekimenek. “Diru-laguntza politika aldatu behar da eta azken urteotan hedabideentzako aurrekontuek izan duten beherakadari buelta eman, enpresek produktua duintasunez kaleratzen jarrai dezaten”.

Irizpideen inguruan gogoeta egiteko prest dago sektorea eta Jaurlaritzak ere horretarako borondatea erakutsi duenez, elkarrekin lan egiteko gonbita luzatu du Hekimenek: “Orain, urratsak egiteko unea da”.

Elkarlanerako lau lan talde

Hekimenek lau lan talde jarriko ditu martxan batzar nagusiaren ondoren. Publizitatea, sinergiak, interneteko estrategia eta berrikuntza landuko dituzte, elkarlanean euskal hedabideek aurrean dituzten erronkak identifikatzeko asmoz.

Gainera, audientziak neurtzeko proposamena eztabaidatu eta onartu zuen batzar nagusiak: horrela, sektoreko euskal medioek sarean duten kontsumitzaile kopuruaren informazio eguneratua izango dute.

Mozioa EAEko Legebiltzarrean

EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEk euskal hedabideei buruzko mozioa onartu zuten joan den astean Eusko Legebiltzarrean. Testuak Jaurlaritzari eskatzen dio azter ditzala euskal hedabideekin batera zein neurri hartu behar diren, “dotazio ekonomikoa barne”, hedabideen jarraipena bermatzeko. ■



ANDRE TA JABE 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO INAZIOARTKO EGUNA

Identifikatzen, salatzen, eraldatzen
Eguneroko indarkeria sexistaren kontra



ANDRE TA JABE - WORLD CAFÉ

Azaroaren 12an

Gizarte eragile ezberdinek emakumeek beraien eguneroko bizitzan jasaten duten bortizkeriaren inguruan eztabaidatuko dute.

ANDRE TA JABE - ARTE EKINTZA

Azaroaren 22an 11.30-14.30

Eztabaidatik Artera: sortzaile talde batek emakumeek bere bizitza bortizkeriatik aske bizitzeko eskubidea modu artistikoan adieraziko du.

ANIMA ZAITEZTE!

PLAZA DE LAS MUJERES 25N
C/ BAILÉN, 1 - BILBAO